eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

www.ehu.es/azpidazki

EMUN
LANA EUSKALDUN ZEKO KOOPERATIBA

EHUREKA AHOLKUAK

13

ZER EGIN?

cc BY NC

Zer egin?

1

Norbaitek erdaraz egiten badit, nik euskaraz egin diezaioket? Edukazio txarrekoa al da?

Euskaraz egin dezakegu, jakina. Ez da edukazio txarrekoa, guztiz kontrakoa. “Edukazioz” hizkuntza aldatu behar hau geure hizkuntzarekin eta kultur nortasunarekin ditugun konplexuak eta autoestimu gabeziak justifikatzeko aurreiritzien osagai bat besterik ez da. Ohiturak aldatzeko asimilazio edo akulturazio prozesu baten bidez botereek inposatutako jokaera kodeetan du jatorria “kortesiaz” hizkuntza aldatzeko topikoak. Horrenbestez, ohiturak “naturala” ematen du eta, onartutako beste edozein ohitura bezalaxe, aldatzen zaila egiten zaigu. Baina, finean, horixe besterik ez da: **ohitura**. Nahiz eta hasieran ahalegina eskatuko digun, denbora gutxian ohitura bilakatuko zaigu ahal den guztietan euskaraz egitea.

Zer egin?

2

Solaskideak ez didala ulertzen esan dit edo/eta erdaraz egiteko eskatu dit. Zer egin?

Lehen hitza euskaraz egiteak sorpresa on asko emango digu. Egoera askotan, nahiz eta besteak ez jakin euskaraz hitz egiten, ulertzen badu, guk euskaraz egin ahal izango diogu besteak erdaraz erantzun arren, betiere polikiago eta hitz errazak erabilita, hobeto ulertu ahal izan dezan.
Kasu guztietan, irribarrea eta adeitasuna oso lagungarri izango zaizkigu elkarren arteko komunikazioa hobetzeko.
Dena den, solaskideak berariaz erdaraz egiteko eskatzen duen kasuetan, otzan jokatu eta erdaraz erantzun beharko genuke.

Zer egin?

3

Afrikarra, amerikarra, asiarra edo munduko beste tokiren batekoa izateko itxura duen bati hitz egin nahi diot. Zein hizkuntzatan egin behar diot? Eta bera etorri bazait eta lehen hitza erdaraz egin badit, zer egin?

Lehen hitza beti euskaraz egiten ahal diogu, normaltasun osoz. Hasteko, edozeini egin diezaiokegu lehen hitza euskaraz, duen itxura duela. Ez badigu ulertzen, esango digu edo konturatuko gara, eta orduan aurreko puntuan ikusi dugun moduan jokatu ahal izango dugu.

Zer egin?

4

Eta gogoratu zuengana jotzen dutenek eskubidea dutela euskaraz egiteko eta euskaraz erantzuna jasotzeko.

Argazkia: Izarren hautsan

Informazio gehiago:
- Zer egin …? eskuliburua
- Elebide: Eusko Jaurlaritzak sortu duen hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzua.
- Behatokia: hizkuntza eskubideen behatokia.